

kitto!

...eta

725 zkia. 2010-VI-11

ASTEKARIA

TOKIKOM



Ikastolako jai beroa

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean




Laserrak txantxarra goiz antzematea ahalbidetzen digu, mingarriagoak eta garestiagoak diren tratamenduak saihestuta



Txantxarra, periodontitis edo piorrearekin batera, hortzak galtzea eragiten duten ahoko-gaixotasun ohikoek dira. Orain dela oso gutxira arte, txantxarra antzemateko modu bakarra ikus-behaketa, esplorazio zundatzea eta erradiografiak eginda zen. Baina, **ohiko bitartekoak erabilita, ahoan hasberriak diren txantxarren %60 baino ez dugula antzematen.**

Eta zer gertatzen da orduan? Txantxarrak aurrera egiten jarraitzen duela, gero eta handiagoa egiten. Modu klinikoan behatu dezakegu, baina hortza nabarmen ahuldu da eta, orohar, tratamendu handiagoa behar izaten du (endodontzia, berregiteak, koroak...). Eta tratamendu hori, zalantza barik, pazientearentzat garestiagotatik izateaz gain, kontsultara gehiagotan joan beharra eragingo dio. Baina, hala ere, **garrantzitsuena hortza etorkizunerako ahulduta, askoz ere**




Klinikoki ez da txantxarrak ikusten...

hauskorragoa geratzen dela da.



...ezta erradiografia bitartez ere...

Hortz-diagnostikorako LASERRA erabiltzen hasi gure klinikan. Minik ematen ez duen eta inolako arriskurik ez dakarren teknikari esker, **ahoa hasberriak diren txantxar guztien %96 antzeman ditzakegu.** Gainera, txantxarrak erradiografiak egiteko premia barik antzematea ahalbidetzen digu eta, beraz, benetan erreala den erradiazioaren arriskua saihesten dugu. Diagnostikorako LASERRAK txantxarra sa-soiz antzematea ahalbidetzen



...baina, ikusten ez badugu ere, txantxarra hor dago...

digu eta, horri esker, tratamendua askoz ere sinpleagoa izango da: **enpasta egitearekin nahikoa izango da, kontsultara ez da horrenbeste alditan joan beharrik izango, min gutxiago eragingo dio pazienteari, merkeagoa irtengo zaio...** Eta, are garrantzitsuagoa dena: **hortza erabat osasuntsu egoten jarraituko du.** Etorri gure zentrura eta diagnostikorako LASER bidezko azterketa egingo dizugu, inolako konpromiso barik.



HORTZ-DIAGNOSTIKORAKO LASERRA

DIAGNOSTIKO KONBENTZIONALA	LASER BIDEZKO DIAGNOSTIKOA
X izpiak erabiltzen ditu, erradiazio kaltegarria	Ez du X izpirik erabiltzen
Txantxarren %60 antzematen ditu	Txantxarren %96 antzematen ditu
Diagnostikoa berandu egiten da	Diagnostikoa goiz egiten da
Tratamendua mingarria eta garestia da	Tratamendua minimoa eta merkea da
Hortza, tratatuta ere, ahulduta geratzen da	Tratatutako hortza osasuntsu geratzen da
Diagnostiko ez fidagarria	Diagnostiko fidagarria



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

J.A. Mogel Ikastola

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GAUZADABEN / GAUZAEZDABEN.- Zeozertarako balio duena, gauza dena. Ezertarako balio ez duena, gauza ez dena. "Gauzadabena da erreusetara bota dozun piezia". "Gauzaezdabena gizon baten billa zan arriskura bialtzeko".

GAUZA IZAN.- Zerbitutarako gai izan, adorea euki. Normalean ezezka erabiltzen da. "Sekula ez naiz izan odola ikusteko gauza".

ESKUTITZAK

"BAI UDALBILTZARI BABES TALDEA"-REN AURKEZPENERAKO GONBITE-GUTUNA

Gutun honen bitartez, herriko hautetsi eta hautetsi-ohi, elkarte kultural, gizarte-eragile eta norbanakoen artean Udalbiltzaren aurkako epaiketaren berri eman nahi dugu eta bidegabekeria honen aurkako elkartasuna bildu.

Zazpi urte eta gero, iritsi da epaiketa hasteko eguna: uztailaren 15ean hasiko da. Bertan 22 lagun daude inputatuta, gehienak udal hautetsiak izandakoak. Akusazioek 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorra eskatzen dute, inolako jarduera deliktiborik ez dagoen kasu batean.

Euskal gizartean eta nazioartean auzi hau salatu izan da. Adierazpen aipagarrienak dira:

- 2.000 euskal hautetsi baino gehiagok nazioarteko erakundeetara bideratutako salaketa.

- Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak argitaratutako txostenak.

- 2008ko abenduan Gasteizko Legebiltzarrak onarturiko ez-legezko proposamena, non fiskalari akusazioa erretiratzeko eskatzen zaion.

Bide berdinetik jarraitu nahi dugu, ahalik eta elkartasun zabalena jasoz, eta ahalik eta jende gehienari bidegabekeria honen berri emanez. "Egunkaria" kasuan bezala, gure hautetsiei, hautetsi gisa egindako lan hutsagatik, ezarri nahi zaion eskubide zibil eta politikoen bortxaketari aurre egingo dion olatu sendoa gorpuztu nahi dugu.

Hori dela eta, herriko lagun batzuk "Bai Udalbiltzari Babes Taldea" sortzearen beharra ikusi dugu eta Babes Talde hau pentsamolde anitzeko herritarrei zabaltzea komenigarria ikusi ere.

Hori dela eta, gonbitea egiten dizuegu ekainaren 12rako, eguerdiko 12.30etan Kulturalean egingo den bilera irekira.

Bide batez, ekainaren 12an 12.00etan Udaletxearen aurrean egingo den kontzentrazio isilera ere gonbidatzen zaituztegu. Leloa: "Bai Udalbiltzari. Bai Euskal Herriari".

EIBARKO "BAI UDALBILTZARI BABES TALDEA"

KRISIA BAI, KRISIA EZ...

Joan den astean Amaia Etxezarretak krisiak ...eta kitto!n duen eraginaz galdetzen zuen. Gaur egun ohikoa da guztiaren errua krisiak edukitzeak, ez da baina horrela gurean. Aldizkaria astero zintzilikatzen da gure webgunean (www.etakitto.com). Krisiak EZ du inungo eraginik horretan; ezin dugu esan guk zergatik ez duzun aurkitu, beti jarzenu dugu-eta leku berean.

Krisiak, BAI, izan du eragina orri kopuruan eta horrek

edukietan. Udalaren diru-laguntza %26 jaitsi da aurrean eta elkarteko atal guztiak aurrera egiteko (Berbetan, Harixa Emoten, Ipurterre, Ilunabarrian eta abar...) lekuren batean gastuak murriztu behar... Ondorioz kolaborazioak alde batera laga behar izan ditugu, baina EZ kolaboratzaileak ez ordaintzeagatik, beti egin baitute euren lana fin-fin eta musutruk, orri kopuruarengatik baino.

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Galdetzen didatenean ea ez den dirua xahutzea Senatuak presuposua gastatzea gaztekerara itzultzen (berau jakitea derrigorrezkoa denean) pentsioak moztu diren bitartean, jarrera horri demagogikotzat dertzot. Senatua lurralde-ganbara da eta senatariak katalanera jakin beharko luketen pertsona kultuak. Baliteke une hau ez izatea egokiena itzultzaileekin hasteko, baina demokrazia garestia da. Bestela, zergatik ez planteatu Senatuak ixtea behingoz?"

(Josep Antoni Diran i Lleida, politikaria)

"Bakardade sentimentua erabatekoa da intersexualitate kasuetan, gogorra guztiz. Emaitzarik onena umetan egiten diren ebakuntzek izaten dute, baina jaioberri bati ezin zaio galdetu neska edo mutila izan nahi duen. Umeak zer sindrome edo arazo dakarren ikusi eta nahiko doitasun handiarekin iragar daiteke neska edo mutil izan nahiko duen, eta horren arabera haztea komeni da. Haurrari sexu bat eman behar zaio nera-bezarora iritsi aurretik, sufrimendua gutxiagotzeko"

(Gabriel J. Martín, psikologoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

EUSKAL MEMORIA

Ekainaren 18an Euskal Memoriaren gaineko hitzaldia egingo da Kultur. Euskal Herriko historiaren berreskurapen kolektiboa egiten dihardu Euskal Memoriak, eta Lucio Urtubia, Jose Mari Esparza, Joxe Elorrieta, Eñaut Elorrieta, Floren Aoz eta Erramun Martikorena dira, besteak beste, elkartearen fundatzaileak.

LEHEN LAGUNTZAK

Eibar-Ermuko Gurutze Gorriak lehen laguntzen kurtsoa antolatu du ekainaren 14 eta 23a bitartean Ermuko San Lorentzo eskolan. Astelehenetik eguenera egingo da 09.00etatik 14.00etara eta 40 orduko iraupena izango du. Informazio gehiagorako edo matrikula nola egin jakiteko 943 17 62 49 telefonora deitu edo Gurutze Gorriaren egoitzara joan.

"ZUTIK EUSKAL HERRIA"

Eibarko ezker abertzaleak 'Zutik Euskal Herria' ebazpenaren aurkezpena egingo du ekainaren 16an eta horren gainean hitzaldia eskainiko du. Honen gainean informazio gehiago lortu nahi izanez gero www.ezkerabertzalea.info webgunera jo.

Zergen zatikako-ordainketa

EIBARKO UDALAK UDAL-ZERGAK ZATIKA ORDAINDU AHAL IZATEKO ORDENANTZA ONARTU ZUEN ASTELEHENEAN. Proposamena berez onartuta dagoen arren, uztailean egingo da behin-betiko onarpena eta datorren ikasturtera arte ez litzateke indarrean sartuko. Neurri berriarekin herritarrek aukera bi izango dituzte zergak ordaintzeko orduan: ordainketa bakarra, orain arteko moduan dena batera egitea ala, bestela, zatika ordaintzeko aukera ere eskainiko zaio jendeari. Gaur egun bizi den krisi egoerari nola-baiteko irteera emateko asmoz hartutako neurria



izan da, Ezker Batuak 2008an egin zuen zatikako-ordainketa egiteko proposamenaren haritik datorrena.

Errebalen gestio txarra EB-rentzat


ELI GOMEZ EZKER BATUKO (EB) ZINEGOTZIAK JOAN DEN ASTEAN ADIERAZI ZUEN DENBORAK ARRAZOIA eman diola EB-ri Errebalgo merkataritza zentruaren kasuan. *"Udalak ez zigun kasurik egin eta herriak jasaten ditu eta jasaten jarraituko ditu ondorioak, dena Udalaren gestio txarragaitik"*, aipatu zuen Gomezek.

EB-k urtarrilaren 25ean Udalak Boulevard-ekin salerosketa kontratua sinatzearen aurka bozkatu zuela gogoratzen du Eli Gomezek. *"Udalarentzat eta herriarentzat txarra zen akordioa, izan ere, herritarren diruarekin ordaindu beharko da Udalaren gestio txarraren ondorioz gertatutako egoera"*. Eroskik administrazio-errekurtsoa aurkeztu

du urtarrilaren 25eko akordioarengatik, eta Boulevard enpresa arazo honetatik onik atera dela salatzen du Gomezek.



Gestio txarra herritarrek ordainduko dute EB-ren ustez. / SILBIA HERNANDEZ

**Metaleko beharginak protestan**

GIPUZKOAKO METALGIN-TZAK AURREKO ASTEAN HASITAKO GREBA JARDUNALDIEKIN AURRERA dirau (laugarren greba eguna gaurko zegoen deituta) eta, horren harira, ELA eta LAB sindikatuek

deituta manifestazio jendetsuak zeharkatu zuen atzo herria, Untzagatik abiatuta. Hitzarmenaren negoziazioaren aldeko aldarrikapena egiten dihardute beharginek, Adegik egin nahi dituen murrizketen kontra.

Oporrak planifikatzeko gomendioak

UDAKO OPORREN AURREAN HAINBAT GOMENDIO EMAN NAHI IZAN DITU EIBARKO KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIO UDAL BULEGOAK (KIUB). Besteak beste, oporrak denboraz eta alde zuzenetik ondo planifikatzea gomendatzen da, eskaintza ezberdinak aztertuz, eta zuzenena informazio esku-papearak, foietuak, publizitatea edo propoagandaz jabetzea bikainena izan daitekela dio KIUB-ek eta letra txikia irakurtzea.

Oporretan burutzen diren kontratazioen inguruan informazio gehiago nahi duten guztiek KIUB-ren bulegora (udaletxean) hurbil daitezke edota 943 20 38 43 telefonora deitu.



Debabarrena mailako manifestaldia Eibarren egin zen atzo. / EKHI BELAR

...eta kitto!n SALGAI (Ur-kizu, 11)



Pasa-falta:

- Nagusiak, 26 euro
- Umeak, 20 euro

Rugbi:

- Nagusiak, 26 euro

...eta kitto!:

- Basikoa, 20 euro

Kamisetak SALGAI

asteko
49.500
datua

kontsultari arreta eskaini zitzaizen Pegoran iaz, aurreko urtean baino %14 gehiagori; 39.922 Untzagako bulegoan bertan atentitu zituzten, 6.406 telefono bitartez egindako informazio-eskaerak izan ziren eta 1.109 telefono bidez egindako tramiteak.

Belaunaldien arteko festa zoragarria

KARMEN KALEAK BELAUNALDIEN ARTEKO II. EL-KARGUNEA JASO ZUEN EKAINAREN 4-AN eta giro ederra bizi izan zen bertan. Dantza egiteko aukera egon zen, joko tradizional eta berrietan aritu ziren bertara hurbildu zirenak, eskulanak egin zituzten, txokolatea jan... egun borobila izan zen. Bigarren aldia da ekintza hau egiten dena eta helburuen artean belaunaldi ezberdinen artean guneak konpartitzea, berdineganako guneenganako errespetua sustatzea eta jokuen elkar-ezagutza aurkitzen dira.



Armeria eta El Corte Inglés-aren bekak

ARMERIA ESKOLAK ETA EL CORTE INGLESEK 30 BEKA BANATUKO DITUZTE ARAZO



EKONOMIKOAK DITUZTENEN ARTEAN 2010-2011 kurtsoari begira. Laguntzak eskolako beharrezko segurua, gurasoen elkarteko kuota, eta kurtso hasieran banatzen diren material eta erramintak ordaintzeko zuzenduta daude. Bekak jasotzeko, eskatzaileak 3 hilabete eraman behar dituzte gutxienez lan-eskatzaile bezala edo bere familiakideak langabezia aurkitu beharko dira. Gaur amaitzen da eskaera egiteko epea eta matrikulazioa baino lehen emango dira bekak.



Musika, dantza eta euskera Euskal Jaian

EUSKAL JAIK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN GURE HERRIAN (BETI BEZALA). Eguraldia lagun, dantza, bertso eta ekitaldi ugariz gozatzeko aukera egon zen herrian. Gose musika talde arrasatearrak kontzertua eskaini zuen barixakuan Untzagan eta euren musika bereziaz gozatzeko aukera izan zuten bertan bildutakoek. Ohikoa den moduan, kantu-afaria egin zen zapatuan Untzagan kokatutako karpan eta abesti ederrak entzun ahal izan ziren bertan ondo afaldu ostean. Jendearen parte-hartzea handia izan zen eta Euskal Jai ederrak bizi ahal izan ziren.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laber

Egoibonen (Signo poligonoz)

Partikular, mutua eta aseguru-etxesi zerbitzuak

Koroak - Ekialak - Utsuranoako ekialak

Euskal Herri osuko ospitaleetan bertan zaituzte

Nezio eta Nazioarteko itzuldeak

Mugica Ehorzketa
Funerarioak 1416en

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



Egun bat gehiago izango du feriak Untzagan. Martitzenean egin zuten irekiera.

...eta kitto!-k zabaldu zuen Garagardo Feria

EIBARKO RUGBY TALDEAK ...ETA KITTO! EUSKERA ELKARTEA OMENDU NAHI IZAN DU AURTEN ETA, HORRELA, MARTITZENEAN ...eta kitto!-k zabaldu zuen ofizialki Garagardo Feria. ...eta kitto! Euskera Elkarteko zuzendaritzako kideak Untzagako karpako oholtzara igo ziren rugby taldekoekin batera, eta hainbat berba bota eta Kezkako dantzariaren aurrekuaz gozatu ostean, oroigarri berezi bat jaso eta topa egin zuten,

feriari hasiera emanez. Domekara arte egongo da zabalik karpa Untzagan eta bertan hainbat garagardo ezberdinez gozatzeko aukera dago: Salvador, Guinness, Paulaner (garia), Paulaner Blond, Affligen Dubel, Affligen Blond eta Murphys. Sabela betetzeko, bestetik, ukondoa eta saltxitxak daude. Ordu-tegiari dagokionez, gaur eta bihar 19.00-etatik 01.00-etara egongo da zabalik eta domekan 18.00-etatik 22.00-etara.



Zumarraga-Eibar trenez lotzeko asmoa

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAK, EUSKAL TRENBIDE SAREAREN BIDEZ, Zumarraga eta Eibar artean trena jartzeko dauden aukerak aztertzeke ikerketarako izapidea abiarazi du. Azterketa egiteko ardura hori beren gain hartu nahi dutenek, zutailaren 19ra arte izango dute euren proposamena aurkezteko aukera eta, behin onartuta, urtebeteko tartean egin behar-

ko dute azterketa. Aipatutako tren-ibilbidea aurretik martxan egon zen, baina 1975ean bertan behera geratu zen zerbitzua. Hala ere, desagertutako Zumarraga-Maltzaga trenbidea gogoan, haren antzerako bat berriz abia daitekeen aztertu nahi du Iñaki Arriola eibartarra buru duen sailak. Linea hori martxan ipiniz gero trenak zenbat bidaiari eta merkantzia garraio erakarriko lukeen aztertzea da helburu nagusia.

anzorik anzo



Kanpoko igerilekua 19an zabalduko da

Datozen egunetarako aurreikusita dagoen eguraldia kontuan hartu dute Kirol Patronatoko arduradunek kanpoko igerilekua noiz zabalduko duten erabakitzeko orduan: hasieran instalazioak biharko zabaltea espero zuten, baina azkenean ekainaren 19an, zapatuan zabalduko dute kanpoko igerileku berritua eta irailaren 19ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian: egunero 10.30etatik 20.30etara.

Horrela, bide batez, igerilekuen inguruan sartu duten belarrari piskat hazteko tartea emango diote. Azken hilabeteotan igerileku ingurua handitzeko beharrak egin dira: Eroski aldameneko errepidearen parean lur gehiago sartuta, 1.500 metro karratuko azalera duen gunea berria prestatu dute eta, horri esker, jendeak eguzkia hartzen egoteko toki gehiago izango du aurrerantzean, 2.300 metro karratu orotara. Orain arte 800 metro karratu baino ez zegoen horretarako eta bero handiko egunetan txiki geratzen zen, batzaz beste 1.000 lagun batu ohi delako. Beharrek 820.000 euroko aurrekontua izan dute.

eibar kalea

Ibarkurutze kalea

Izen bereko iturriaren inguruan jasotako etxeek osatzen dute kalea. 1944ko San Juan egunean inauguratu zuten; lehenagotik, 1892an bazegoen iturri bat han, baina 1944an Udalak iturria egiteko proiektua eraman zuen aurrera eta inauguraziotik egun batzuetara, ekainaren 28an, iturriari kurutze bat gehitzea erabaki zuten.

Pegora kopurua: 9.

Erroldatutakoak: 109.



GREMIOEN GIDA

INDUSTRIAL
SERVICIOS
COMERCIO
CONSUMO

ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Beherehabilitazioa etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
INDUSTRIAL
MANTENIMIENTO ELECTRICIDAD
TELECOMUNICACIONES
INDUSTRIA MANUTENCION
PROYECTOS
SERVICIOS

GARBIKETAK

escudero
INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia



Egiturak, barruko eta kanpoko ateak,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

CRISTALUX
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxbe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK



*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZATATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketarako
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak
askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kokakazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24



PINTURAS
ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89


Asier Serranoren**kolaborazioa****Saltzen saltzen (II)**

Aurrekoan, duela lau aste, kulturaren ekonomia politikaren adibide bat proposatzen nizuen. Nahasean nabil. Idatzitakoa produktu bilakatzen denean, galderak datozkit: barrenetik irten dena nola metamorfositu den banatzaileen esku gera dadin, edo merezi ote duen norbere lana konpartitzeak... edo gehien gorroto dugun galdera: zergatik demonio idazten dugun? erantzuna hain da tristea, ezen nahiago izaten dugun aitzaki metaforiko ponpoxoekin egia mozorrotu. Literaturgintza eta liburugintzaren, edo musikagintza eta diskogintzaren arteko haria ikusezin bihurtu da, eta agian hala behar du izan. "Zernorinolosaldu" sindromeak jota gailtza, euskal kulturgintzaren balizko krisia gogoan. Ez gara ohartzen krisia bizirauteko tresnarik motibagarriena dela.


Kuriositatez ikusten ditut bere artea saltzen duten artistak, baina are kuriosoagoak iruditzen zaizkit, disimulurako ez bada ere, bere burua saldu dioten produktu horretan sinisten ez dutenak.

musika**Kerobia
Ontziak**

Biolentziaren justifikazioa absurduaren bidera eramatea, amaieraren aurreko barne bakea, empatia giza harremanaren oinarri, bikaintasuna ekiditea... Horiek dira Kerobia bere 'Ontziak' izeneko trilogiaren azkeneko alean proposatzen dituen gogoetak.

**Esne Beltza
Noa**


Esne Beltza taldearen bigarren diskoa (Noa) doinu anitzez josita dator. Esne Beltza global basque erroa da. Esne Beltza taldean doinu guztiek hitz egiten dute euren izenean, hangotarrak eta hemengotarrak. Esne Beltza taldearen musika-marmitaren barruan koloreak, aniztasuna eta oraina daude.

**Jokin Urain
Ez dago etxean**

Ez dago etxean kartzelako euskal literaturaren ibilbide orri bat da. Idazle presoan eta preso idazleen lanen berri zehatza dakar, hala aldikarrietan nola genero guztietako liburuetan argitara emandakoaren entziklopedia txiki bat. *Ez dago etxean* euskal presoan ihesaldien krokisa da.


**Yurre Ugarte
Gasolindegia**

Gertatuko zitzazizun noiz-bait: entzuten duzu esaldi bat eta hitzek, laser isil nahiz indartsu baten antzera, zainak ireki, zainen barruan sartu, atzera zainak itxi eta odolean txertatuta geratzen zaizkizu, burutik behatzetarainoko buelta etengabea.

**literatura**


Krisi ekonomikuaren ondorioz jende askoren egoeria asko larrittu da eta edozer gauza egitteko prest dagoz aurrera urtetzeko. Organuen salmentia asko igo da eta interneten ikusi leike hori. Organuen salmentia debekatuta dago legez eta baita horren gaiñian iragarkiak egittia.

Zelan ikusten dozu organuak saltzia?



VICTORIA CASADO
68 urte
enpresarixua

Ez jata bape ondo begittantzen organuak saltzia. Begittantzen jata beste aukera gehixago daguzela hori egin baiño lehenago. Bizitzan aukera asko dagoz. Halanda be, organuen gaiñian gauza asko esan leikez eta berba asko egin leike horren gaiñian.




IGNACIO RODRÍGUEZ
46 urte
pulidoria

Txarto ikusten dot, oso txarto. Ni organuen donantia naiz, baiña ez dot bape ondo ikusten organuak saltzia diruaren truke. Hildakuan organuak emotia ondo ikusten dot, baiña saltzia ez, oso txarto.

LUIS MARIA ALBERDI
74 urte
jubilaua

Ez dot ondo ikusten organuak saltzia. Bakotxak beran borondatez organuak emotia ondo daguala begttantzen jata, baiña saltzia ez. Halanda be, holako gauza bat egitteko prest daganak premiña haundixa euki biharko dabela pentsatzen dot.



MARI TERE ANDRÉS
51 urte
bihargiña

Hori baktxak hartu bihar daben erabagixa da, zeozer pertsonala da, holan, baktxak ikusiko dau zer egin. Neri ez jata heldu momentu txarrik holako gauzaren bat egitteko moduan pentsatzen jartzeko. Ondo ikusten dot hildakuan organuak emotia, baiña horrekin negozixuak egittia ez.



ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK ERREFORMAK LOKALAK ETXEBITZAK

Arragueta, 12 EIBAR **ELGOIBAR Errosario, 15**
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 FOMA: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA:
Foto-depilazio Unitatea

TEEN-
AJEA



Aste biren buruan Sanjuanetan egongo gara murgilduta eta jai giroa nabaritzen da herrian. Sanjuanetako kartela ezagutzera eman da eta baita alkoholaren gehiegizko erabileraren aurkako pegatina ere. Ibai Lazkano eibartarrak diseinatu du aurtengo pegatina irabazlea: “klink ein, klonk barik”.

IBAI LAZKANO:

“Pozgarria da zure pegatina herri guztian ikustea”

- Nola inspiratu zinen pegatina diseinatzeko orduan?

Unibertsitateko lagun batek barixaku batean, eta asteburua aurretik zetorrela komentatzen, eskuekin edalontzi bateko izotzak mugitzeraen keinua egin zuen, ‘klink-klink’ egiten moduan. Orduan, ideia piztu zitzaidan eta hortik abiatu zen nire pegatinaren diseinua.

- Ying-Yang ikurraren antza dauka.

Pegatina egiteko orduan ez nuen horretan pentsatu, baina amaitutakoan eta emaitza ikusita bai daukala itxura hori.

- Zer deritzozu zuk egindako pegatina bat herri guztian jende guztiak erabiltzeari?

Oso gauza polita da. Koadrilakoak hasi dira dagoeneko adarra jotzen horrekin. Urtero Sanjuanetan ikusten den zerbait da alkoholaren gehiegizko erabileraren aurkako pegatina eta aurrean nik egindakoa izatea oso pozgarria da. Gainera, Diseinu Industrialak ikasten dihardut unibertsitatean, eta urtean zehar egindakoak eta modu ba-

tean han ikasitakoak horrelako emaitza bat izateak sari polita da niretzat.

- Pentsatzen duzu jendeak kontuan izango duela pegatina alkohola edateko orduan?

Zaila da hori; izan ere, herriko jaiak dira eta jendearen ohiturak aldatzea zaila. Agian baten batek pegatina ikusi eta gogoan edukiko du, baina baliteke jaramonik ez egin eta kontrako egitea.

- Pentsatu duzu sariarekin zer egin?

Pentsatzen dut San Juan bezperan emango didatela. Hala ere, Sanjuanak, udako oporrak... daude aurretik; beraz, egongo da saria disfrutatzeko aukera.

- Horrelako lehiaketetan parte hartzeko ohitura daukazu?


Txikitan Marrazketa eta Margo Eskolan ibili nintzen eta lehiaketa bat irabazi nuen. Ordutik ez dut inon parte hartu, pegatina lehiaketa honetara ailegatu arte. Agian gehiagotan probatu beharko nuke horrelako lehiaketetan.



Emakume ekintzailea zara?
Lan-postua izatea nahiko zenuke?
Sortu egizu zure enplegua,
negozio bat abiaraziz.
ZURE ametsa, proiektua, etorkizuna.
ZURE esku dago. Guk lagunduko dizugu lortzen.



Doaneko informazio-hitzaldia Eibarko Portalea Kultur Etxean (ekainak 16, eguaztena, 19.00etan)
Informazioa eta izen-emateak: 943 200 041 - nagore@somosasesores.com




Iturburuko jai-giro gori-gori-gorri-gorria

Maiatzeko azken asteburuan eta ekaiñeko lehelenguan ospatu zittuen olinpiadak Juan Antonio Mogel ikastolakuak, Haur Hezkuntzakuak lehelengo jardunaldixan eta gaiñontzeakuak bigarrenian, aurreko zapatuan egun osua bete eban XIV. Kirola Euskaraz Bizi jaialdixan. Goizian goiz hasi ziran ekitaldiak; kalejira eta bestelakuen ostian ailelgau



zan kirol probetan indarrak neurtzeko ordua eta kirolari gaztiak (eta horren gaztiak ez diranak be) argi laga eben benetan sasoiko daguazela, modalidade guztietan primeran moldatu ziran-eta: esku-saski-pelota, desfilea, pelota, foballa, saskibaloia, patinajia, bolei-hockey-sokasaltua, sokatira, aerobitoia, abiadura, errelebuak, txinga-eruatia, kaska-

ra-biltzia, krosa... eguzkixak gogotik berotuta be, ez zan iñor kikildu eta atzera be euskal giro jatorrian pasau eben eguna. Eta, zelan ez, Juan Antonio Mogel ikastolia jaixo zala 50 urte betetzen diran honetan, Argitxo iratxuak ez eban kale egiñ eta Iturburun batutakuak geletako batetik kuku eginda agurtu zittuan, datorren urtera arte.









'Egunkaria, amets baten egia' liburua kaleratu dute Ramon Zallo, Txema Ramirez de la Piscina, Pedro Ibarra eta Teresa Agirreazaldegi EHUko irakasleek. Euskaldunon Egunkaria-ren sorrera eta produktuari berari buruzko egiak ditu ardatz liburuak. Agirreazaldegi eibartarrak eman dizkigu liburuari buruzko xehetasunak.

- Egunkaria, amets baten egia titulua dauka liburuak. Zein da egia hori?

Kaleratu zen egunean Euskaldunon Egunkaria-k lehen orrialdean zuen 'Agurra'-k honela zioen: "Euskaldunon aspaldiko ametsa egia bihurtzen dugu Egunkaria plazaratzean". Euskal kazeta euskaltzaleon ametsa izan zen hainbat eta hainbat urtetan. 1990ean amets hura bete egin zen. Azken zazpi urteetan Egunkaria auziko auzipetuek eta, oro har, euskaltzaleok halako amesgaizto bat bizi izan dugu, era guztietako gezurrak eta irainak irakurriz eta nozituz, egia hori zikindu, orbandu eta desitxuratu baitute: Egunkaria ETArekin tresna izan zela, Egunkaria-k berak ETA finantzatzen zuela, ETAk aukeratzeko zituela zuzendariak, euskararen aitxakian eredu politiko jakin bat inposatu nahi zela... Hainbeste gezurren ondoren, hainbeste irain entzun eta gero, Egunkaria proiektuaren egia historikoa argitzea garrantzitsua zela eta egia idatzi behar zela uste genuen. Liburu honek Egunkaria zer ez zen kontatzeaz gain, Egunkaria benetan zer zen azaldu nahi du.

- Auzitegi Nazionalaren epaiarekin egia gailendu dela esango zenuke?

Ebazpenak argi adierazten du ez auzipetuek ezta Euskaldunon Egunkaria-k ere ez zutela inongo harremanik ETArekin, eta Guardia Zibilararen inputazioak aurreiritziak zirela soilik, oinarririk gabeak. Gainera, komunikabidea ixtea bidegabekeria izan zela dio, oinarri juridikorik gabe hartu zela erabakia, halako neurriak salbuespen egoeretan aplikatzeko direlako soilik. Alde horretatik, ebazpena erreferente bat da, eta aurrera begira eta antzerako auzibideetan mugarririk izan beharko luke.

- Zergatik egin liburu hau?

Joan Mari Torrealdai ibili da auzipetuen bozeramaile lanean, eta berak esan zigun lastima zela horrenbeste lan egin ondoren iritzi publikoak horren berririk ez izatea. Izan ere, hemen argitaratzen dena Auzitegi Nazionalak onartu ez zituen txosten perizialak dira. Lanak helburu jakin baterako eta toki berezi baterako sortu ziren, hau da, epai ge-



TERESA AGIRREAZALDEGI, EHUko irakaslea:

“Egunkaria auziarekin amesgaiztoa bizi izan dugu euskaltzaleok”

lan Egunkaria-ren defentsa egiteko. Epaietan hitzetik hortzera ibili izan dira liburu honetako azterlan bietan sistematikoki landuriko kontzeptuak. Lanek kontrapuntu zientifikoa ematen baitiete Egunkaria auziaren bul-tzatzaileek egindako akusazioei eta esandako gezurrei.

- Zuri zer ekarri dizu horrelako proiektu batean jarduteak?

Liburuarena pozgarria izan da. Eta txosten perizialaren enkarguari oso garrantzitsu deritzot, halako bidegabekeriari unibertsitatek eta ikerkuntzatik erantzuna emateko aukera izan delako. Alde horretatik, nahiz eta Auzitegiak gure lekukotasuna ez onartu, beharbada epaiketa ez luzatzeko, jakin badakigu eragina izan duela magistratuengan. Ebazpenak gure tesia berresten du, nahiz eta gaia ez sakondu, eta hori oso pozgarria izan da guretzat.

- Zer pentsatzen duzu Egunkaria auziaren gainean? Egunkaria itxi izana, frogaririk gabe epaiketarik urteetan jarraitu izana...

Sumarioa zentzugabea da guztiz, legedi

guztia urratu eta bortxatu dute. Aznarrek sustatutako bulkada politiko baten ondorio zuzena izan zen. Sumarioak pertsona itzaltsu batzuk akusatu zituen, gizarte ekimen bat desegin, euskal kulturaren tresna garrantzitsu bat deuseztatu, komunikazio pluraltasuna pobretu, kalte ekonomiko larria egin, lanpostuak galarazi, langile batzuk lanik gabe utzi eta, politikaren alorrean, erreparatu gabeko kontu bat da bere burua zuzenbidekotzat daukan estatu batean.

- Epaiak auzipetuei eman die arrazoia, baina justizia egin da?

Ebazpenak errugabetzat jo ditu auzipetuek, eta hori oso albiste ona izan da, benetan. Baina justizia egiteko, sumarioak egindako kalteak onartu beharko zituen, kaltetuei kaltearen ordaina eman, bidegabekeria honetan guztian egon diren erantzukizunak ikertu eta zigortu eta mekanismoak martxan jarri horrelakorik berriz gerta ez dadin. Zoritxarrez, ez du ematen holakorik egingo denik.

ELKARRIZKETA OSOA
WWW.ETAKITTO.COM webgunean

Leire Olaberria domina olinpikoa Debabarrena-Kirolgira

MARIA QUINTANAL TIRAZAILEAREKIN BATERA, MAILA INDIBIDUALEAN MUNDIALETAN ETA JOKO OLINPIKOETAN DOMINA LORTU DUEN Euskal Herriko kirolari bakarrak Debabarrena-Kirolgirekin jardungo du errepide probetan. Une honetan Emakumeen Biran dihardu parte hartzen eta Giroa egiteko asmoa ere badu Eibarko taldearekin. Irailetik aurrera, ostera, garaipen gehien eta izena eman dizkion pista hasiko da prestatzen.



beste garaipen bat lortu du, oraingoan afizionatuen mailako eliteko Euskadiko txapelketa. 124 kilometroko proban, Romero bakarrak helmugaratu zen, jarraitzen zion boskoteari 1'39"ko tartea kenduz.

Igor Romero, Euskadiko txapelduna

Lehen Debabarrenan ibilitako eta gaur egun Caja Ruralean diharduen Igor Romerok

Gutxien espero zenean, Cuturak Arrate lagako du

EZIN IZAN DIO EZETZIK ESAN LEONGO REALE ADEMARRETIK EGINDAKO ESKAINTZARI eta azken sei denboralditan Arrateren gorputz eta arima izan den Dalibor Cutura kapitainak taldea lagako du; 37 urte ditu eta denboraldi birako joango da Ademarrekin. Hitzeko akordioa zegoen Eibarko taldearekin jarraitzeko, baina azken trenetako hau hartzea erabaki du serbiarrak. Orain arazoa izango du Arratek bere mailako jokalaririk aurkitzeko merkatuan, jakinda gainera taldeak dituen diru-arazoak.




Lamariano atezaina Antequerara

Yeray Lamariano Eibarko atezainak Asobal Ligan jokatuko du hurrengo denboraldian ere. Aurten maila galdu arren Octavio Pilotes Posadarekin, talde hori laga eta Antequerarekin fitxatu baitu.

Asola-Berri nagusietan eta emakumeetan txapeldun

GIPUZKOAKO 41. HIRU-TXIRLO BOLA TXAPELKETA AMAITUTA, Elgoibarko San Migueleko bolariak izan dira nagusi azken sailkapenean: lehenengo hiru postuen jabe egin dira eta Asola-Berriko Jesus M^a Díezek beteranoena; taldeka, Asola-Berri A bigarrena izan da.

txirlorrek. Oraingoan eibartarrek maila apalagoan jardun badute ere, Olaitz Rodríguezek berriro irabazi du emakumeen sailkapena eta Jesus M^a Díezek beteranoena; taldeka, Asola-Berri A bigarrena izan da.




Andoni López, triatloi esprinteko Euskadiko txapelduna

KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELA IRABAZI DU ANDONI LÓPEZ EIBAR TRIATLOI TALDEKO 15 URTEKO GAZTEAK. Deban jokatutako proba horretan, eta maila guztietako 350 atleten artean, bera izan zen lehenengoa igeriketa proba amaitu eta uretatik irtetzen; etorkizun handiko

atleta da. Ane Ziaran azpitxapeldun izan zen juniorretan eta Alejandro Altunak postu bera eskuratu zuen beteranoak-2 mailan. Eibarko taldea ordezkatuz, beste bost atleta izan ziren Debako proban: Moises Altuna, Iker Aranzibia, Jose Mari Artetxe, Carlos Pérez de Obanos eta David Soto.

Etxaniz eta Arrillaga-Lizarralde San Juan pelota torneoko finalera

FINALERDIETAKO LEHENENGO JARDUNALDIA JOKATUTA, SAN JUAN TORNEOAK finalerako erdiak sailkatuta ditu dagoeneko. Lau eta erdiaren barruan Etxaniz (22-8 irabazi zion Arribillaga elgoibartarrari) eta binaka Arrillaga-Lizarralde (22-20 Karmona-Pérez) dira finalistak; besteak, hurrengo zapatuan 11.30etatik aurrera jokatuko den jaialditik irtengo dira: kaiolan Egaña-Arrizabalagaren partidutik eta binaka Unamunzaga-Portu eta Larreategi-Agirrebeña bikoteen artean.



Joseba Altuna garaile berriz Galdaramiñoko lasterketan

ZAPATUAN URKIKO JAIEN BARRUAN JOKATUTAKO GALDARAMIÑOKO MENDI LASTERKETAN, Joseba Altuna azpeitiarrak irabazi zuen berriro eta, horrela, orain arteko edizio biak bereganatu ditu.



Guztira 40'37" behar izan zituen ibilbidea betetzeko (24'24" igotzeko eta 16'13" jaisteko) eta ia minutu bi kendu zizkion Zigor Esnaola bigarrenari. Guztira, 21 lagun izan ziren parte hartzen eta Pilar Arriola elgoibartarra izan zen emakume bakarra.



Hainbat kiroltako eskolak ireki dira

ASTELEHENEAN EIBAR FO-BALL TALDEKO ESKOLAN PARTE HARTZEKO IZENEMATEA ZABALDUKO DA. Laugarren ikasturtea da programa hori martxan dagoela eta irailaren 13ra arte eman ahal izango dute izena interesatuek. 150 plaza izango dira eta urrian hasiko da funtzionatzen 2011ko ekainera arte (2000, 2001 eta 2002an jaiotako neska-mutilentzat da). Bestalde,


Arratek atzo eta herenegun egin zituen proba batzuk 1998an jaiotako neska-mutilekin. Bihar, bestalde, waterpoloko ate zabalik jardunaldia egingo da 14.00etan Orbea kiroldegian eta datorren egunean (ekainak 17) 19.30etan bilera egingo da Portalean orain arte izena eman dutenen gurasoekin, denboraldi berrian izango den funtzionamendua zehazteko asmoarekin.

Zaletuen Kopa JoserAuto-rendako

LIGA IRABAZTEAREKIN KONFORMATU EZ ETA KOPAN ERE NAGUSITASUNA ERAKUTSI ZUEN JoserAutok eta finalean 2-0 nagusitu zitaion Tecnografik taldeari. Carolok sartu zituen gol biak eta partidu horretako jokalaria onena ere bera izendatu zuten. Jarraian sari-banaket egin zen eta, horrela, JoserAutok, Txokok eta Durango ligako hiru onenenak jaso zituzten, Txokoko Kukik gol gutxien jaso zituen atezainarena, JoserAutoko Baquék goleatzaile nagusiarena eta Clínica Irazabalek kiroltasunarena.

Emitza bikainak igeriketan

BARAKALDON JOKATUTAKO ESKOLA MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETETAN Urvat-Urko tronik-eko igerilari bi (Ane López 200 metro libretan eta Ander Izagirre 100 metro libretan) Euskadiko txapela jantzi zuten eta beste bi azpitxapeladun geratu ziren (Ander bera 200 metrotakoan eta Iratxe Moya 100 estilotan). Horrez gain, 4.etik 10.era inoko hainbat postu eskuratu dituzte gure herriko igerilari gazteenek.



Belaustegi Baserria JATETXEA

Bere 11. urteurrenean

- Aperitiboa.
- Ahate-moussea Módena eta konpotekin.
- Antxoa-tosta salmorejoarekin.
- Ganboia plantxan.
- Legatz-solomoa muskuilu kremarekin.
- Azpizuna, Pedro Ximénez saltsarekin.
- Belaustegi postrea.
- Kafea.

Prezioa: 38'50 euro + BEZ + edaria



Informazioa eta erreserbak:
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

ELGOIBARKO San Miguel gainean

Portxe-jardineko jaima arabiarrean bazkaldu eta afaltzeko AUKERA

Emekin programa ezagutzera emango da ekainaren 16an. Somos Asesoreseko Jaione Morenok emango du hitzaldia, aholkulari horiek izango baitute emakume ekintzaileei laguntzeko ardura. Emakume ekintzaileen ideiak sustatzeko proiektua da Emekin.

JAIONE MORENO (Somos Asesores):

"Emakume ekintzaileak behar dira gaur egun"

- Zer da Emekin?

Emakumeek gero eta protagonismo haundiagoa dute enpresa-munduan, eahalegin handia egin dutelako horrela izateko, baina oraindik hainbat oztopo aurkitzen dituzte bidean. Gizonen eta emakumeen artean zatiketa dago oraindik, tradizionalki lan-merkatua gizonentzako izan delako eta etxeko-lanak emakumeentzako. Horrela, Diputazioa, Caja Laboral eta AS-PEGI erakundeak ondorio batera iritsi dira, Europar Batasuneko lerroak jarraituz, emakumeen artean ekintzailetasuna bultzatzeko. Hori da Emekin, emakumeen artean enpleguaren sorrera sustatzeko helburua duen programa.

- Noiztik dago martxan?

2007an jarri zen martxan eta lehen saioa 2013ra arte egongo da. Irten dira hainbat proiektu, batez ere Donostialdean, izan ere, hemen beste antzeko proiektu bat zegoen martxan, emakume eta gizonentzako elkarlanean zuzenduta zegoena.

- Zergatik da emakumeentzako espreski programa hau?

Emakumeen beti izan dute arazo gehiago lan-merkatuan eta enpresa-munduan sartzeko. Euren profilari, emakumeen enpresen profilari, eta testuinguru soziokultural eta ekonomikoari atxikitutako arazoak dira horiek. Hala ere, gaitasun handiko emakume asko dago eta ez da euren gaitasun hori aprobetxatzen. Emakume ekintzaileak oso beharrezkoak dira, ez da gizonengana mugatu behar, hobe da herritar guztiak hartzea. Gainera, hainbat txostenek esaten dutenez, gizonak sortutako enpresak lehenago 'hiltzen' dira emakumezkoenak baino.



- Zer egin behar du emakume batek programa erabiltzeko?

ASPEGIra edo gugana etorri behar da lehenik bere ideia kontatzeko. Ondoren, ekintzailea izateko trebetasunak garatzeko tailerrak jasoko dituzte eta bideragarritasun plana egingo diogu. Ondoren, enpresa aurrera eramanez gero jarraipena eta tutoretza egingo diogu urte batez. Dena doan. Guk Debabarrenako zerbitzua eskainiko dugu, izan ere, 20 entitate homologatu gaude eta zerbitzu hau eskaini ahal izango dugu gure bailaran.

- Proiektua jakitera emateko hiltzaldia eskainiko duzue.

Hilaren 16an hitzaldi-informatiboa eskainiko dugu Portalean. Emekin zer den jakitera emango dugu, baina proiektu horrez gain dauden antzeko proiektuen berri ere emango dugu jakitera, tristea izango litzatekeelako beste laguntzak ez aprobetxatzea.

- Jendea animatu da Eibarraren?

Oraindik ez da jakitera eman, baina lehengoan Emakumearen Mahaikoekin elkartu ginen eta jarrera positiboa aurkeztu zuten. Zerbait egiteko asmoa zuen jendea ikusi genuen.



EH Sukarrak hilaren 18an joko du Untzagan, Reno Renardo taldearekin.

Sanjuanak, datorren asteburutik aurrera

EGUAZTEN EGUERDIAN AURKEZTU ZUTEN AURTENGO SANJUANETAKO PROGRAMAZIOA UDALETXEAN. Jabier Zorrakin Jai Batzordeburuak egindako aurkezpenean aldamenean izan dituen M^a Jose Telleria, Jose Luis González "Poxpolo" eta Jone Telleria Jai Batzordeko kideak. Aurtengo programa osatzeko 150.000 euro erabili dituzte eta, azken urtetotako martxari jarraituz, San Juan egunaren aurretik hasiko dira jaien inguruan antolatutako ekitaldiak eta horietako asko ekainaren 18ko asteburuan pila-tu dituzte. Egun horretan arratsaldetik egongo da zer ikusi, 19.30- etatik aurrera Dantzari Eguna ospatuko baita Untzagan, Klub Deportiboaren eta Kezka Dantza Taldearen eskutik. Horrez gain, Eibarko Balletoko dantzariak ikasturte amaierako ikuskizuna eskainiko dute Coliseoan. Eta gauean, Astele-na frontoiak boxeo gaua hartuko du, besteak beste hainbat borro-kaldi eta Sanda profesional erakustaldia eskainita. Eta Untzagan, berriz, EH Sukarra taldeak bere sorreraren 20. urteurrena ospatzeko kontzertu berezia eskainiko du, Reno Renardo taldea hasierako talde gonbidatu izango duen emanaldian.

Euskal Jaialdia hilaren 20an

Hurrengo egunean, goizean zein arratsaldean Sanjuanetako hainbat kirol norgehiagoka jokatuko dira. Iluntzean, Txalo Kon-



painiak "Trampa mortal" antzezlana taularatuko du Coliseoan, emanaldi bikoitzean eta gauean berriz ere musika izango da protagonista, Doctor Deseo taldeak Untzagan emango duen kontzertuarekin. Taldearen kontzertua amaitzean, berriz, Arno DJ-k jarraituko du gaua giro-tzen. Eta domekan goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak, 07.30etan Elgoibarko Dultzaineroek zezen-plazaraino gidatuko duten kalejirarekin. Jarraian, Marqués de Sakako bigantxekin enbolatuak egingo dira. Squash txapelketa goizetik jokatuko da, Ipurua kiroldegian eta Ipurua Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia, berriz, eguerdian hasiko da Untzagan. Eta arratsalderako, errekortadoreen jaialdia egingo da zezen-plazan, Untzagan herri kirolak izango dira protagonista ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako Euskal Jaialdian eta Lacasiun emakume latinamerikarren taldearen eskutik dantza ikuskizuna egingo da. Eta hori guztia hasiera baino ez da, ondoren datozen egunak bete-betuek etorriko zaizkigulako. Berraz, hasi motorrak berotzen.



Lehen bi sariak jaso zituzten ikasleak, euren ikasleekin. / EKHI BELAR

Armeria Eskola sariak La Sallera eta Itziora joan dira

ARMERIA ESKOLA SARIEN 7. EDIZIOKO IRABAZLEEK EGUAZ-TENEAN JASO ZUTEN SARIA, Armeria Eskolan bertan egindako ekitaldian. Lehenengo saria La Salle Isasi ikastetxeko ikasleek aurkeztutako "Saharako basamortua" proiektuarentzat izan da. Proiektu teknologikoa Micaela Garciarena, Amaia Frías, Xabier Oruesagasti, Andrea Torres eta Unai Lekunberrik garatu dute, Ander Gisasola irakaslearen zuzendaritzapean. Irabazleek 750 euro (475 ikastetxeko teknologia sailarentzat informatika-materialean erabiltzekoak eta gainontzekoa taldekideen artean banatzeko) eta diploma jaso dituzte.

Epaimahaiko kideek bigarren sa-


ria Itzio BHIko ikasleek aurkeztutako "Pertsiana elektronikoa" proiektuari ematea erabaki dute. Juan Estanislao, Aitor Suárez eta Markel Sanz izan dira egileak, Amaia Muniategi irakasleak zuzenduta. Irabazleek 450 euro (erdia ikastetxeko teknologia sailarentzat informatika-materialean erabiltzekoak eta beste erdia taldekideen artean banatzeko) eta diploma jaso dituzte.

Epaimahaiko kideek lehiaketara aurkeztu diren proiektu guztien "maila altua" azpimarratu dute, "berreziki maketarekin batera entregatutako dossierrari dagokionez". Bestalde, batxilergoko kategorian ez da saririk banatu, ez delako proiekturik aurkeztu.

Ganbarako kontzertua eskainiko du Usartza txistulari Bandak

DOMEKAN (EKAINAK 13), 12.30ETAN KONTZERTUA ESKAINIKO DU USARTZA TXISTULARI BANDAK COLISEOAN, honako ganbarako piezak eskainita: "Nere jaitegiko oyar otsak" (J. M. González Bastida), "Txorinoa nora hoa?" (J. M. González Bastida), "Donostia" (P. Sorozabal), "Txoriak" (Aita Hilario Olazaran), "Aitziber" (Lorenzo Ondarra), "Poema del txistulari solitario" (Rodrigo A. Santiago), "Tambourin-LE Basque et La Biscayenne" (Rameau-J. Cassanea) eta "Kontzertua Remen" (Luis Aranburu).

Kontzertuan parte hartuko duten musikariak, berriz, hauek dira: Elena Pérez (1. txistua), Enrike Montero eta J. M. Laskurain (2. txistua), Asier Castelos (silbotea), Iñaki Orbegoza (atabala), Anna Mikhaleva Levenson (1. bibolina), Alberto Gaztanbide (2. bibolina), Amagoia Elosegi (biola), Noelia Blázquez (biolontxeloa), Jesús M. Arriaran (oboea), Ainhoa Urkizu (klarinetea), Aitor Guillón (fagota) eta Isabel Laspiur (pianoa).



agurain 2010

araba euskaraz gogo biziz

autobus
zerbitzua

Irteera 09.00etan
Ego Gaietik

19.00 etan

9 euro

txartelak ...eta kitto!-n

ekainak 20

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

PARETETATIK IGO BARIK

ASKOZ ESKURAGO DUZU

San Juan eguneko pilota jaialdiarekin gozatzea

aspelota.com

LAU SARRERA ZURE ZAIN

Behoko datuak bete eta hilaren 14rako ...eta kitto!-ra (Urkizu, 11) ekartzen baduzu, ekainaren 24an Astelenan jokatuko den pilota jaialdirako **LAGUN BIRENDAKO BINA SARRERAKO** zozketan hartuko duzu parte.

IZEN-ABIZENA:

.....

.....

TELEFONOA:

.....

laburrak

Koadrilekin bilera

Aurtengo sanjuanetan parte hartuko duten koadrilentzat bilera deitu du Jai Batzordeak. Bilera ekainaren 16an (eguaztana) egingo da, 19.00etan Portaleko 3. pisuko batzartokian.

Jubilatuaren txangoa

Ipuruako jubilatu etxeak uztailaren 16rako egun osoko irteera antolatu du: Gernika, Bermeo, Gaztelugatxe, Bakio, Portugalete eta Santurtzi bisitatuko dituzte, besteak beste. Gernikan hamarretakoa egingo dute eta bazkaria, berriz, Montenegro jatetxean izango da. Txartelak ekainaren 16tik aurrera ipiniko dituzte salgai (25 euro bazkideentzat, 30 euro bazkide ez direnentzat).

1960an jaiotakoak

Urriaren 16an (zapatua) urte horretan jaiotakoen bazkaria egingo da Arrate hotelean. Joan nahi duenak 80 euro sartu beharko ditu, izena eta abizen bi ipinita, kontu korronte honetan: 2101 0035 11 0012624078. Ekitaldia 12.30etan hasiko da, Untzagari batuta. Edozein argibide behar izanez gero e-maila idatzi nacidos1960@hotmail.com helbidera.

Ikasturte amaiera paregabea Berbetan-en

GIRO PAREGABEAN EMAN ZUTEN EGUNA ARRASATEN MINTZA EGUNAREN BOSGARREN EDIZIOA OSPATZEKO batu ziren 300 bat lagunek; tartean ...eta kitto! Euskara Elkarteko Berbetan egitasmoan parte hartzen dihardutenetako batzuk egon ziren eta oso ondo pasatu zutela azaldu digute.

Antolatzaileen ongi etorriaren ondoren, bertaratutakoek hamaiketako egin zuten Biteri plazan, txalapartaren soinuak lagunduta eta, ondoren, Arrasateko historia eta txoko esanguratsuak ezagutzeko ibilbide gidatua hasi zen, Ana Isabel Ugaldere eskutik. Ibilbidearen ostean, Manex Agirre eta Jokin Labaien bertsolari



300 bat lagun izan ziren Arrasaten ospatu zen Mintza Eguna V. edizioan.

gazteek jarri zioten piperra goizari. Bazkaria udaletxeko plazan egin zen karparen azpian eta postrean sarian eman zieten mintzapraktika egitasmoetan ibilbide nabarmena egin duten hainbat laguni.

Berbetan Tribiala

Bestalde, eta ikasturtearen amaierarekin bat eginda, Berbetan Tribiala lehiaketa irabazi duen taldeak saria jaso zuen eguazten arratsaldean: afari-merienda ederra. Ikasturte honetan lehenengoz martxan ipini den tribiala 10 galderaz osatuta dago eta Berbetan egitasmoan parte hartzen dihardutenek taldeka erantzun behar izan dituzte hainbat gairen inguruko galderak, urria eta maiatza bitartean. Taldeak mintzapraktikarako batzen ziren orduan, han bertan bete behar zituen galderak eta lehiaketa eguaztenero Depor tabernan 19.00etan batzen den taldeak irabazi du.



Depor tabernan batzen den taldeak irabazi du Berbetan Tribiala. / ANHOA LUZ

Argazkilaritza ekainean ere bai

KLUB DEPORTIBOAREN ARGAZKILARITZA TALDEKOEK OSO MODU POSITIBOAN BALORATU DUTE ARGAZKILARITZA MAIATZEAN programaren inguruan antolatutako ekitaldiek izandako erantzuna: "Sei erakusketa antolatu ziren eta arrakasta handia izan dute denek, kalitate handikoak izan dira. Portalean egindako erretratu tailerrak areto nagusia bete zuen, 100 lagun parte-hartzearekin eta Untzagako argazki estudioak 500 bat lagun batu zituen. Ar-

gazki rallyan, bestalde, 30 lagunek hartu zuten parte". Ekainean, berriz, hainbat erakusketa izango dira martxan Argazkilaritza Taldearen eskutik: Portalean argazkilaritza ikastaroan parte hartu dutenen lanak ikus daitezke. Eta Depor tabernan Periko Iriondoren "Mendirik Mendi" izenburuko erakusketa dago ikusgai. Horrez gain, Iriondok hilaren 16an Deporren bertan "Trekking en Mongolia" 20 bat minutuko iraupena duen lana aurkeztuko du.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELOK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA: Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 Fax: 943 202564

BAMETSA


Toribio Etxebarria, 4

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Ongi etorri, NAROA, maiatzaren 29tik mundu honetan gure artian zagozelako. Famelixaren partez.




Zorionak, MARKEL, gaur hiru urte egiten dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, BEÑAT, bixar urtebete egiten dozu-eta. Moxu haundixe famelixa guztiaren partez, ipurditxo bihurritxo guria!




Zorionak, ENEKO, atzo bost urte bete zenduazelako. Aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, EKAIN, domekan urte bi beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IRATI (atzo urtebete) eta AMAMA (martitzenian urtiak). Muxu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, EUKEN (bost urte) eta bere lehengusina KATRIN Alzelai (urtebete), urtiak egin dozuez-eta. Muxu haundi bana famelixaren partez.

JAIOTAKOAK

- Izar Ormaetxea Mendia. 2010-V-23.
- Aitana Santos Fulgencio. 2010-V-26.
- Jon García Pérez. 2010-V-29.
- Naroa Hernández Garitano. 2010-V-29.
- Markel Unanue Mugerza. 2010-VI-2.
- Irati Blanco Pérez. 2010-VI-3.
- Malen Pedrosa Gómez. 2010-VI-3.
- Alba Sierra González. 2010-VI-6.

zinea Coliseoan

11n, 20.30etan; 12an, 19.45 / 22.30etan; 13an, 20.00etan; 14an, 20.30etan.

"La nana"


Zuzendaria: Sebastian Silva
Aktoreak: Claudia Celedón, Alejandro Goic, Catalina Saavedra, Mariana Loyola



Rakel emakume itxiak 23 urte daramatza Valdés familiarendako biharrean. Hauek beste inude bat kontratatuko dute eta Rakelek arriskuan ikusiko du bere tokia. Lucy kanpotik etorritako beste emakume batek Rakelen jarrera aldatuko du.

"La última canción"

Zuzendaria: Mike Newell
Aktoreak: Miley Cyrus, Greg Kinnear, Kelly Preston, Liam Hemsworth



Banaturtako aita eta bere alaba nerabea Estatu Batuetako hegoaldeko itsasoaldeko hiri txiki batean dira, alabak Nueva York-en izatea nahiago izango zuenean. Musika izango da bien arteko harremana hobetzeko aurkituko duten aukera bakarra.

"Un ciudadano ejemplar"

Zuzendaria: F. Gary Gray
Aktoreak: Jamie Foxx, Gerard Butler, Colm Meaney, Bruce McGill



Clyde Sheltonek ikusiko du bere emazte eta alabaren hiltzailea kartzelatik irtetzen dela legezko akordio bati esker. Berriarekin atsekabetuta, mendekua hartzeko plana egingo du, ez bakarrik gaizkileen aurka, baita negoziatzaileen kontra ere.

HILDAKOAK

- Josefa Ramos Bouzo. 92 urte. 2010-VI-1.
- Rosa Lizarralde Aretxabaleta. 89 urte. 2010-VI-3.
- Pilar González Deben. 75 urte. 2010-VI-4.
- Ricardo Iregi Ziorraga. 82 urte. 2010-VI-4.
- Carmen Márquez Bocanegra. 85 urte. 2010-VI-5.
- Begoña De la Cruz Llantada. 91 urte. 2010-VI-7.
- Rafael Fernández Salgado. 74 urte. 2010-VI-7.
- Oren Sola Urzainki. 81 urte. 2010-VI-7.
- Jesusa Zabala Erbiti. 97 urte. 2010-VI-9.
- Clemencia García Pérez. 78 urte. 2010-VI-9.

horoskopoa

ARIES

Beroak ez dizu onik egiten, baina gutxienez hondartzara joateko aprobetxatu dezakezu, zuri gustatzen zaizunarekin...

TAURUS

Hutsegite barregarri bat egingo duzu. Hasieran kezkatu egingo zara, baina garrantzi handirik ez duela konturatuko zara gero.

GEMINI

Gaur barixakua da, asteburua daukazu aurretik eta gauza asko egiteko. Zergatik besteei itxaron? Ezin duzu hori bakarrik egin?

CANCER

Azken asteetako lanak bere fruituak emango ditu eta emaitzak zoragarriak izango dira. Ahaleginarekin gauza onak lortzen direla ikusiko duzu.

LEO

Zure nortasunari eutsi beharko zenioke eta ez besteei diotenagaitik aldatu. Zureari begiratu eta ez egin kasu besteen berba txarrei.

VIRGO

Asteburu ederra daukazu aurretik. Azken egunetako estresa albo batera utzi eta momentu gozoak biziko dituzu.

LIBRA

Proiektu berriak hasiko dituzu eta gogotsu ekingo diozu momentu berri honi. Zure onena ematen saiatuko zara.

SCORPIUS

Gauzak hastea erraza da, zailagoa jarraitzea. Gogoa izatea da gakoa, eta baita ilusioa mantentzea ere. Ea nola eusten diozun.

SAGITTARIUS

Uda ederra igaroko duzu, baina hainbat konpromiso bete behar dituzu aurretik. Ez da bide erraza izango, ezta arazo askokoa ere.

CAPRICORNIUS

Garagardoa gustoko baduzu, ezin pozago ibiliko zara asteburuan. Hori bai, sabela ondo bete saltxitxa edo ukondoarekin.

AQUARIUS

Foball ligak amaitu dira, baina Munduko Kopa da orain hasiko dena. Ez dago atsedunik. Burua baloia bezala ipiniko zaizu.

PISCIS

Bizitzako momentu zoragarrian zaude eta ez du ematen hori aldatuko denik. Merezi duzu, batez ere horrela egoteko asko borrokatu duzulako.

Barixakua 11

HITZALDIA

18.30.- "Elkartegintza eta parte-hartze soziala. Udalen papera, jarrerak etra baliabideak". Hizlariak: José Jiménez (parte-hartze politikan aditua) eta Aser Lertxundi (Aralar taldeko udal politikako arduraduna). Antolatzailea: Ezkerraberrri fundazioa. Portalean.

GARAGARDO JAIA

19.00.- Garagardo Jaia eta kontzertua: AZDZ (AC/DC-ren bertsioak). Untzagako karpan.

DANTZA

19.30.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Sarrera: Euro 2. Coliseo.

Zapatua 12

MUSTRAKO TXAKURRAK

09.00.- Erakusketa txakurren probintziako txapelketa. Izen-ematea: 08.00etatik 09.00etara. Txapelketa soziala arratsaldean izango da. Antolatzailea: Diana ehiza eta arrantza elkarteak. Arraten.

ABESBATZEN KONTZENTRAZIOA

12.00.- Kaleetan Kantuz abesbatzen kontzentrazioa. Untzagan. Jarraian kalejira.

UDALBILTZA

12.00.- "Bai Udalbiltzari. Bai Euskal Herriari" kontzentrazio isila. Udaletxearen aurrean.
12.30.- Bai Udalbiltzari babes taldea sortzeko bilera irekia. Arrate Kultur Elkartean.

BERTSO BAZKARIA

14.00.- Bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Beñat Ugartetxea eta Mikel Arrillaga. Gai-jartzailea: Miren Zamakola. Sarrerak Deportiboan bertan.

URBAT

14.00.- Ate Irekiak Jardunaldiak, Ubat Igeriketa Kirol Elkartearen eskutik. Orbea kiroldegian.

RUGBIA

15.00.- Emakumezkoen Rugby Seven Torneoa. Unben.

GARAGARDO JAIA

19.00.- Garagardo Jaia eta kontzertua.
22.00.- Jon and Sugramas (rock&rolla). Untzagako karpan.

KONTZERTUA

23.00.- Alice & The Blackfeet taldearen kontzertua. Ryder tabernan.

Domeka 13

TXORI KANTARIAK

09.00/14.30.- Eibarko Hiria Txori Kantarien XI. Txapelketa. JJJ Memoriala. Antolatzailea: Eibarko Txori Lagunak. Laguntzailea: Euskal Herriko Txori Basatien Ornitologia Federazioa. Arraten (eguraldi txarra eginez gero, Iturburun egingo da).

KONTZERTUA

12.30.- Ganbarako kontzertua, Usartza Txistulari Taldearen eskutik. Coliseoan.

GARAGARDO JAIA

18.00.- Garagardo Jaia eta kontzertua.
22.00.- Jon and Sugramas (rock&rolla). Untzagako karpan.



Martitzena 15

BILERA

19.00.- Sanjuan jaietan parte hartuko duten koadrilekin bilera. Portalean (3. pisuan).

Eguaztena 16

KONTZERTUA

19.00.- Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

HITZALDIA

19.30.- "Zutik Euskal Herria". Antolatzailea: Ezker Abertzalea. Portalean.

Eguena 17

KONTZERTUA

17.45.- Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren Nagusien Banda eta Folk-Rock-Pop Bandaren kontzertua. Sarrera: Euro bi. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

KONTZERTUA

19.00.- Untzaga jubilatutako etxekoan kontzertua. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

DANBORRADA


19.00.- Amañako umeen danborradarako entseguak.
20.00.- Helduen danborradarako entseguak. Amañako Eskolan.

WATERPOLO-BILERA

19.30.- Waterpolo eskolan izen-emanda edo interesatuta daudenen gurasoekin bilera.

URTEKO BATZARRA

19.30.- Arrate Kultur Elkartearen urteko batzarra. Kultun.



erakusketak

- Ekainaren 13ra arte
DAVID MATEU ETA CRISTINA AZPIRIren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Ekainaren 18ra arte
"EGOIAZIAREN JOAN-ETORRIA: 10 años de Egoaizia". *Untzagako Jubilatuen Etxean.*
- Ekainaren 20ra arte
ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLEN ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- Ekainaren 30era arte
JOSE ZUGASTIren eskultura erakusketa. *Alfa Arten.*
GURUTZE AGIRREren "Mugimendua" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
Klub Deportiboaren **ARGAZKILARITZA IKASTAROAN** parte hartu dutenen argazkiak. *Portalean.*
PERIKO IRIONDOren "Mendirik mendi" argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- Uztailaren 23ra arte
"ARTE Y ARQUITECTURA EN EIBAR" maketa erakusketa. *Armaztagaren Museoa.*

ikastaroak

- **UEUko Udako Ikastaroak.**
Matrikula: *Ekainaren 20ra* arte. Informazioa: www.ueu.org, 943821426 telefonoan.

farmaziak

- 11, barixakua**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 12, zapatua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 13, domeka**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 14, astelehena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 15, martitzena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 16, eguaztena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 17, eguena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 18, barixakua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS delai112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	5			3			
2			8		3	7	
			5		1		
	7		4	9			8
			1	7			
9			2	8		4	
		7		5			
	4	6		1			9
			8			3	

DENBORAPASAK

1	7	4	6	3	2	9	8	5
6	2	8	4	9	6	1	7	3
5	9	3	8	7	1	6	2	4
9	5	2	1	8	6	3	4	7
8	4	6	7	2	3	5	8	1
3	1	7	5	4	9	2	6	8
4	3	5	2	8	7	8	1	9
7	8	1	9	5	8	4	3	2
2	8	9	3	1	4	7	6	6

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Duplexa salgai Elgetan. 85 m². 3 logela, egongela beheko suarekin eta bainugela bi. Berogailua. Guztiz jantzita. 180.000 euro. Aukera aproposa gazte edo bikoteentzat. Tel. 685-751891.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta despentsa. 160.000 euro. Tel. 636-930962 edo 649-091192.
- Pisua salgai Armañin kalean (Txaltxa-Zelai ingurua). 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta kamarotea. Igogailua. Jantzita eta berriztuta. Tel. 679-668719.
- Aukera! Trasladoa dela-eta, pisu zoragarria salgai Errebalen. 4 logela, egongela, sukaldia-jangela, komun bi, estudioa eta estalitako terraza handia. Guztiz berriztuta eta kanpora begira. Prezio interesgarria. Tel. 605-772606.
- Pisua salgai Eibarko erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira. Sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 629-533695.
- Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Kalefakzioa. Guztiz jantzita. Fatxada berriztuta eta bista onak. Prezioa adosteko. Tel. 675-700864.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Santaiñes-lpuruan. Tel. 630-644175.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar inguruan. Tel. 688-811385.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar, Ermua edo Elgoibarren. Tel. 618-714616.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bikoa. Tel. 943-056003 edo 680-749715.
- Urkizu aldean 100 m²ko pisua alokagai. Berriztuta. Tel. 653-733457.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m². Prezio ezin hobea. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.
- Garaje itxia salgai Barakaldo kaleko solairu batean. Tel. 686-224524.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztuta, sukaldia eta komunarekin. Tel. 669-293427.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketaria lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 699-609190.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketaria egiteko. Erreferentziak. Tel. 686-420642.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 659-080186.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 646-394857.
- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan (2. mailako ofiziala) eta soziedadetan garbiketaria egiteko. Tel. 695-702318.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita domeketa ere. Esperientzia. Tel. 663-682150.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan lan egiteko. Tel. 688-687563.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketaria lanetarako eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-351027.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketaria lanetarako eta kamarero moduan. Tel. 659-037882.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 665-301550.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketaria lanetarako eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 663-786976.
- Neska euskalduna (Haur Hezkuntza ikasten) eskaintzen da 2010-2011 ikasturtean umeak eskolar eramateko goizez. Tel. 685-778554.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan edo jatetxean lan egiteko. Tel. 664-553829.
- Neska eskaintzen da interna zein orduko lanak egiteko. Tel. 619-445548.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko, jostun... Tel. 634-478086.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailan umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 690-002131. Eider.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskarera
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-014327.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako: garbiketaria egin, umeak zaindu. Tel. 685-715805. Isabel.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan edo tailerlean lan egiteko eta garbiketaria jarduteko. Tel. 699-230807. Omar Faraji.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketaria egiteko. Tel. 699-230807. Loubna Allaoui.
- Neska eskaintzen da 11.00etatik 16.00ak arte nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da 15.30etatik 18.30etara garbiketaria lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tel. 647-044031.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 638-344377.
- Mutila eskaintzen da gizonetako nagusiak zaintzeko. Tel. 636-172765.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-674323.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo beste edozein lanetarako. Autoarekin. Tel. 680-674323.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 666-771701.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeko-lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 675-007271.
- Neska eskaintzen da gaez zein egunez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 656-493864.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 696-849004.
- Eibarko mutila jaietan eta egun soltetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia. Tel. 650-709936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketaria lanetarako. Tel. 680-223378.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketaria lanak egiteko. Tel. 669-311385 edo 943-531903.
- Mutila eskaintzen da baserriko lanetan laguntzeko edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 686-077316.
- Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero moduan... Tel. 676-392055.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarero moduan jarduteko. Esperientzia. Tel. 690-154754.

4.2. Langile bila

- Kamarero/o behar da Maixa tabernan. Esperientziarekin. Tel. 605-908924.
- Esperientziadun emakume euskalduna behar da umea zaintzeko (07.30-09.30 eta 16.30-18.30). Tel. 696-536272. Naia.
- Kamarero/o eta sukaldari-laguntzailea behar dira asteburuetan Arraten. Autoa eta esperientzia. Tel. 677-638184.
- Familia euskaldun batek au-pair behar du eurekin bizitzeko Londren irailetik ekainera. mirenlondon@hotmail.com
- Kamarero/o behar da egun osorako eta asteburuetarako. Tel. 620-536041.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Goi ikasketa teknikodun gazte euskaldunak klase partikularrak emango litzuzke. Tel. 678-346970.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Maxicosia, silla eta kapazo itsas urdina salgai. Sakoak, fundak eta burbuilak oparitzen dira. Tel. 617-256466.
- Bebecar karroa salgai. 3 erroberakoa, silla eta kapazoa. Errobera berriak, 2. umearendako patina, plastikoa eta motxila. Egoera onean. 200 euro. Tel. 609-492777.
- DBHko 4. mailako Itzioko liburuak erosteko prest, latina barne. Tel. 688-605780.
- Combi hozkailua salgai. Ia berria. 150 euro. Tel. 943-120308. Pili.
- Ekainaren 28an AC-DCK Bilbon emango duen kontzerturako sarre-ak salgai. Tel. 671-841563.
- Volkswagen furgonetarako atzeko bizikletak eramateko erosi nuke. Tel. 671-841563.

4.2. Eman

- Sukaldatzeko sua lagatzeko asmoa baduzu, gustura hartuko genuke. Tel. 664-212382.

sei hileko pack-a

UKIPEN LENTEAK

Freshlens o Bionature
+ sei hilabeterako likidoak

+ OPARIA
TRAVEL KIT

ZURE UKIPEN LENTEKIN
BIDAATZEKO BEHAR DUZUN GUZTIA

ESKUZKO
EKIPAJERAKO
EGOKIA

Errebal, 14 20600 **Eibar**
GIPUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com



natural optics
zu zara, naturala zara

naturaloptics.com

> **klinika kortazar** **Gidabaimenak eta armabaimenak**

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



Toribio Etxebarria, 18

943 70 29 23

Arragueta, 20

943 25 44 21



PARAFARMAZIA
DIETETIKA

FARMALUR



MILA
ESKER



P
A
R
A
F
A
R
M
A
Z
I
A
D
I
E
T
E
T
I
K
A



gure
bezero
eta
lagun
guztiei

enda berria 7. Etxebarria, 18-en

